

LITERATURAREN IKAS-IRAKASKUNTZAN AURRERA EGITEKO ALBUM ILUSTRATUEK ETA IKASGELAKO ELKARREKINTZEK ESKAINTZEN DITUZTEN AUKERAK

Tesiaren egilea: Haizea Galarraga Arrizabalaga

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea (MU)

Saila: Hezkuntza (literaturaren didaktika)

Tesi-zuzendaria: Idurre Alonso Amezua eta Ur Apalategi Idirin

Tesiaren laburpena:

Tesi honen erdigunea literaturaren ikas-irakaskuntza da, Lehen Hezkuntzako etapan literatura nola lantzen den ezagutzea baita jomuga nagusia. Izan ere, ikasgeletan gertatzen dena ezagutzeak aukera ematen du horren inguruan hausnartzeko, hobekuntzarako ildoak proposatzeko eta didaktikarako baliagarriak izan daitezkeen gakoak identifikatzeko.

Literaturaren esparrua hain zabala izanik, beharrezko ikusi da lana genero batean ardaztea, eta ikerketa honetan, album ilustratua izan da hautatutako literatur generoa. Azpimarragarria da generoak azkenaldian bizi duen gorakada, eta hezkuntzan gero eta ohikoagoa da liburu horiekin topo egitea. Genero propio gisa definituta dagoen albumak, gainera, zenbait ezaugarri bereizgarri ditu (testuaren eta irudien arteko harreman sinergikoa, paratestuen esangura, idatzizko testuaren urritasuna edo eza...) eta funtsezkoa da liburu mota horrek dituen eskakizunekin bat datozen esku-hartzeak diseinatzea. Lan honek, hortaz, album ilustratuaren alderdi irakasgarriak ezaugarritzeaz gain, horiek gelartzeko eredu ezberdinak aurkezten ditu.

Literatur generoarekin batera, bada ikerketak duen beste foku garrantzitsu bat, hain zuzen ere: ikasgelako elkarrekintzak. Edozein jakintza-arlotako ikaskuntza-eta irakaskuntza-prozesuak aztertzerakoan, nahitaezkoa da diseinu didaktikoez gain, gelan bertan sortzen diren elkarrekintzei erreparatzea. Hori horrela izanik, didaktikaren begirada holistikoa galdu gabe, elkarrekintzak izango dira analisiaren ardatz, ezagutza literarioak elkarrekin (irakasle-ikasle eta ikasle-ikasle) nola eraikitzen diren ikusi nahi baita.

Arestian aipatutakoa hitz gutxitara ekarriz, esan genezake literaturaren ikas-irakaskuntzaren markoan, album ilustratuak gelara eramaten direnean, gertatzen diren elkarrekintzen analisia dakarrela ikerlan honek.

Azterketa hori guztia egin ahal izateko, prestakuntza-prozesu bat jarri da martxan eta testuinguru horretan jaso dira datuak. Arizmendi Ikastolarekin elkarlanean, prestakuntza ikertua egin da; hau da, irakasleekin batera formazio-plan bat diseinatu eta gauzatu da, prozesu hori ikergai bihurtuz. Arrasateko Arimazubi eta Eskoriatzako Almen guneek hartu dute parte eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko irakasleekin egin da lan. Laugarren mailako irakasleek hiru album ilustratu gelaratu dituzte eta bidean prestakuntza-fase ezberdinak egon dira. Bideoz grabatu da ibilbide osoa (ikasgelako saioak eta prestakuntza-saioak) eta hori bilakatu da ikerketaren corpus. Obra bakoitza gelaratu aurretik, diseinuak egin dira (batzuk bakarka, beste batzuk elkarrekin); horrez gain, formazio-saio monografikoak ere eskaini dira literaturaren, album ilustratuaren eta elkarrekintza didaktikoaren inguruan. Gelaratze bakoitzaren ostean, bideoz grabatutako ikasgelako saioekin autokonfrontazioak egin dituzte irakasleek (haien bideoaren aurrean jarri eta jarduera horri buruz gogoeta egin).

Analisiak zenbait emaitza esanguratsu azalerau ditu. Batetik, agerian geratu da album ilustratuaren egokitasuna elkarrekintza aberatsak sustatzerakoan, esanahi literarioak eraikitzeke aukera anitzak eskaintzen baititu. Bestetik, elkarrekintza didaktiko aberatsak antzematea, horiek aurrez diseinatzea eta gelan sustatzea gako bilakatu da, elkarrekintza emankorrek ahalbidetu baitute ikas-irakaskuntza eredu interesgarriak gauzatzea. Amaitzeko, prestakuntza eta ikerketa uztartzea erabakigarria izan da, irakasleak izan direlako prozesuko protagonistak eta haien jarduera aztertu dutenak.